

BERMEOKO EUSKARA INDARBERRITZEKO AROA



**PLAN ESTRATEGIKOA eta
KUDEAKETA PLANAREN OINARRIAK
2025-2030**



01.

Sarrera



Bermeoko biztanleriaren gehiengoa euskalduna da. Tamalez, erabilera ez dator bat euskara-gaitasunarekin. Erabilera-datu kezkagarriek, gainera, bat egin dute Euskara Sustatzeko Planaren indarraldiaren amaierarekin. Hori dela-eta, une egokia dirudi Bermeoko Udalak —eragileekin eta herritarrekin batera— normalizazioaren bidean egitekoaz gogoeta egiteko eta euskara sustatzeko proposamenak adosteko.

Horiek horrela, Bermeoko Udalak datozen urteetarako euskararen Plan Estrategikoa (AROA) diseinatu du. Plana egiteko erabilitako prozesua baliagarria izan da plana diseinatzeko ez ezik, geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik harago begiratzeko; egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, egindako pausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egoeraren diagnostikoa egiteko.

BERMEOKO EUSKARA INDARBERRITZEKO

aroa

02.

Zer da aroa?





**Euskara indarberritzeko eta
euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategiko berria da**



Plan guztietan egiten den moduan, oinarri edo markoa zehaztea garrantzitsua izaten da.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu berri duen AROA markoa hartu dugu oinarri Bermeoko euskararen Plan Estrategikoa gauzatzeko.

AROA gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da, eta balio nagusi hauek ditu:

- Adostua, egingarria eta eragingarria izatea.
- Hizkuntza-ekologiaren begiradatik aniztasuna kudeatzea (eleaniztasuna; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna).
- Justizia soziala eta gizarte-inklusioa erdiesteko baliabideak sortu nahiz erraztea, horretarako, zehar-lerrotasuna, lankidetzaren eta parte-hartze koordinatua lehenetsiz.



Aroa elkarlanerako proposamen markoa da, eta hamarkada baterako jomuga nagusiak zeintzuk izango diren zehazten du:


1. Euskaraz gehiago eta errazago ikasteko aukerak handitzea.
2. Eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa lortzea. Aisialdian eta kirolean euskarak leku nabarmen handiagoa izan dezan lortzea.
3. Ingurune digitalean euskarak leku gehiago izatea eta hizkuntza teknologien bidez euskaraz komunikatzeko aukera handiagoak lortzea. Ingurune digitalean, edukiak euskaraz sortu eta kontsumitzeko aukerak handitzea.
4. Eremu sozioekonomiko publiko zein pribatuan euskaraz lan egiteko aukerak ugaritzea. Euskaraz ikasitako neska-mutil gazteek lan munduan euskara erabiltzen jarraitzeko aukeretan sakontzea.
5. Euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko aukerak ugaritzea.



Gai guztiei heltzeko kudeaketa koordinatuan eta partekatuan oinarritzen den gobernantza eredua proposatzen du Aroak.

Bermeoren kasuan ere udal-teknikariekin eta zinegotziekin Aroak proposatzen dituen zazpi ardatzen gainean lan egin dugu Bermeoko hizkuntza-politikaren oinarriak elkarrekin definitu eta garatzeko.

Esku artean duzuen txostena marko zabal hori Bermeoko izaera, behar, helburu eta ahalmenenei egokitzeko ahaleginaren emaitza da. Bertan jaso da burututako prozesuaren oinarria, egindako ibilbidea eta iritsitako ondorioa.



1	GOVERNANTZA	Zeharkakotasuna eta parte-hartze koordinatua bermatu beharko da Bermeoko beharrei lekua egiteko. Herriko esparru guztietatik eraldatu nahi dugu euskararen indarberritzea.
2	JARRERAK - MOTIBAZIOAK	Bermeotarrek euskararekiko dituzten motibazioei begira jarri gara: zer da herritar euskaldunek nahi edo behar dutena? Zelan erakarri erdaldunak euskarara? Diskurtsoak ezagutu eta partekatu, entzute aktiboa bermatu nahi dugu.
3	EZAGUTZA - GAITASUNA	Herritarren komunikazio gaitasunean jarri dugu arreta: datuak aztertu ditugu.
4	ERABILERA - ELKARRERAGINA	Erabilera kontzeptua zabaldu eta bermeotarren arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboetan jarri dugu begirada: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, hizkuntza-ohiturak...
5	BERRIKUNTZA	Marko berriak galdera berriak ekarri ditu eta Bermeorako onuragarri diren irtenbide berriak garatu behar ditugu.
6	IKERKETA - SISTEMATIZAZIOA	Prozesuak ikaspen batzuk ekarriko ditu eta horiek aurrera begirako estrategian kontuan hartu beharko dira.
7	KOMUNIKAZIOA - HEDAPENA	Komunikazio eraginkorra lortzeko: norbanakoa, eragile-taldea edo komunitatearen arteko harremanetan eragin nahi dugu.

03.

**Metodologia eta
egiturak**



- Plan estrategikoaren diseinuan parte hartu dute udaleko arduradun politikoek eta AROA markoak barne hartzen dituen teknikariek, eta besteak beste, Bermeoko euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko epe luzeko erronkak eta lan-ildoak definitu dituzte.

1. Barne-gogoeta eta planaren sortze-fasea

Egungo diagnostikoa osatu eta berau oinarri hartuta, aurrera begirako ideiak, inpaktuak, proposamenak eta erabakiak landu ditugu. Horretarako talde bat osatu dugu: politikariek eta Aroa markoak barne hartzen dituen teknikariak osatutakoa. Prozesuaren emaitza nagusia Bermeoko euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko plan estrategikoaren erronkak, lan-ildoak eta ekimenak adostea izan dira.

2. Kudeaketa-plana

Plan estrategikoan landutakoak gauzatzeko ekintza zehatzak landu nahi ditugu herritarrekin batera. Sektore eta profil anitzen parte-hartzea bermatze aldera, parte-hartze markoa adostu dugu: euskalgintza, hezkuntza eta familiak, arlo sozioekonomikoko eragileak, aisialdiko elkarte, talde eta kolektiboak, emakume-taldeak, bizilagun berriak edo jatorri atzerritarreko bermeotarrak, euskaraz ez dakiten herritarrak... Baina horrez gain, plan estrategikoan adostutakoak aurrera eramateko udalak hurrengo urteetarako aurreikuspenak jaso ditu oinarri legez.

Barne-gogoeta eta plan estrategikoaren sortze-fasean egitura bi osatu dira udalean:

TALDE ERAGILEA	
Partaideak	• Bermeoko euskara-teknikaria • Bermeoko euskara-zinegotzia • Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	• Prozesua teknikoki eta metodologikoki zehaztu eta martxan jarri. • Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jaso eta trukatu. • Kontraste-taldea egitura osatu eta martxan jarri. • Galdetegia diseinatu eta emaitzak aztertu. • Prozesuan zehar sortzen diren dokumentuak onetsi (Planaren zirriborroari ekarpenak egin). • Prozesuari segimendua egin, sortu daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak bilatu eta neurri zuzentzaileak ezarri. • Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egin eta aurrera begirako urratsak zehaztu.

KONTRASTE-TALDEA	
Partaideak	• Bermeoko teknikariak • Bermeoko zinegotziak • Elhuyarreko aholkulariak
Funtzioak	• Diagnostikoaren emaitzak landu eta osatu. • Datozen urteetarako sailetako erronka estrategikoak identifikatu.



04.

**Bermeoko euskararen
egoera**



Diagnosticoa osatzeko informazio-iturri ezberdinak erabili ditugu:

UDALEKO INFORMAZIOA: Euskara Zerbitzuko hainbat datu kuantitatibo eta dokumentu aztertu izan dira. Hala nola, Berbalagun, Euskaraldia, Eingule, Turismo Plana...

HERRITARREN GALDETEGIA: Euskaren erabileraren eta presentziaren inguruko datuak jaso ditugu galdetegi baten bidez. Galdetegiak euskaraz bideratu ditugu eta zabalkundea elkartegintzaren bitartez egin da, prozesuaren lehen fasea ekosistema horrekin lantzea erabaki dugulako. Guztira 136 bermeotarrek erantzun dute galdetegia.

EUSTAT, EAS eta KALE-NEURKETA: Ezagutza-datuak Eustat-eko azken datuak dira, eta erabilerakoak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Adierazle Sistematik (EAS) eta Soziolinguistika Klusterrak Bermeon egindako azken kale-neurketei dagozkie.

Ikus. Diagnostikoa



Honako hauek dira diagnostikoaren ondorio nagusiak:

PARTE-HARTZEA

Gizonen eta gazteen parte-hartzea oso baxua izan da, galdetegiaren bitartez ez da posible izan pertsona horiengana iristea. Galdetegia euskaraz egin da eta jakin badakigu ez duela erantzun posibleen unibertso osoa ordezkatzeko.

EZAGUTZA ETA GAITASUNA

Bermeoko indargunea euskara-gaitasuna da; izan ere, herritarren %70 euskalduna da. Gainera, 16.000 biztanletik 14.000k euskara ulertzeko gaitasuna du. Baina hizkuntza-gaitasunaren bilakaeri erreparatuz gero, beheranzko joera daukala antzeman da. Bestalde, bermeotarren ama-hizkuntza, hein handi batean, ez da euskara, egun 6000 pertsonak dute euskara ama-hizkuntzat eta alor horretan hobetzeko tarte handia dagoela ondorioztatu da.

JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK

Euskara bermeotarren identitatearen parte da eta bere biziraupenaren kontzientzia errotua dago. Era berean, Bermeon euskararen erabilera alor emozional batekin lotzen da.

Herritarren pertzepzioen arabera, udalak euskara sustatzeko antolatutako ekimenak ez dira arrakastatsuak. Bereziki, ume eta gazteentzako erreferenteak falta direla aipatu da. Euskara indarberritzeko ekimenak garrantzitsutzat jotzen badira ere, horien arrakasta ezbaian dago. Kontrara, herritarrek ezagutzen dituzte udalak euskara ikasteko dauzkan baliabideak eta egokiak direla uste dute.

Herritarren artean zenbait aurreiritzi daude, esaterako, Bermeon dagoen hizkuntza eta kultura-aniztasuna lantzea positiboki baloratzen da, baina aldi berean euskarekiko mehatxu gisa antzematen da. Beraz, eztabaida gaia izan daiteke. Ahalduntzea, sentsibilizazioa, autokritika... izan dira, besteak beste, hobetzeko arlotzat hartu diren gaietako batzuk.

ERABILERA ETA ELKARRERAGINA

Udal-testuinguruari dagokionez, azpimarragarria da udal euskalduna dela Bermeo, eta euskara ikasteko hainbat baliabide sustatzen dituela.

Udalerriko testuinguruari dagokionez, eragile antolatuen sarea, oro har, euskara komunitatearen parte sentitzea positibotzat hartu da. Elkartegintzan dagoen euskararen erabilera indargunetzat hartu den arren, kirol-arloko eta eskolaz kanpoko ekimen/elkarteetan erabilera txikia dela aipatu da.

Euskara indartzeko ekimen berrien beharra dago, bereziki, aisialdian erabilera sustatzeko. Kale-erabileran beheranzko joera dago, bereziki 15-24 urtekoen artean; beraz, komeni da ekimen berrietan adinaren aldagaia kontuan hartzea. Eingule edo euskal musika erreferente onak izan daitezke. Bestalde, Berbalagun ekimenean parte hartzea gero eta baxuagoa izatearen arrazoiak aztertzea komeni da.

Hizkuntza-aniztasunari dagokionez, hizkuntzak kudeatzeko ereduari erreparatu behar zaiola aipatu da. Era berean, bermeotarra eta batueraren arteko zubiak lantzea komeni da.

05.

Plan estrategikoa



Marko berriaren ikuspegia hurrengo hamarkada osoari begirakoa da, eta halaxe jaso dugu Bermeoko euskararen 2025-2030 Plan Estrategiko honetan ere. Planaren iraupena 5 urtekoa izango da, baina marko berriak ezartzen dituen nahi estrategikoek irismen luzeagoa izango dute.

Jarraian udal-sailetako teknikariekin landutako erronkak jaso ditugu, eta, besteak beste, horietan oinarrituta hurrengo 5 urteetarako AROA markotik aukeratu ditugun ardatz estrategikoak, lan-ildoak eta ekimenak:



SAILA	ERRONKA
Berdintasuna	Emakume ezberdinen integratzeko hizkuntza tresna moduan erabiltzen jarraitzea. Sailen arteko elkarlana bultzatzen jarraitzea, horretarako tartea aurreikusiz.
Gazteria	Gazteekin gauden guneetan euskara izatea komunikazio-hizkuntza: ludoteka, gazteleku, jarduerak... Aisialdia euskararekin lotzea eta erreferenteak izatea.
Kultura	Euskararen garrantzia nabarmentzea, adin guztientzako eskaintza erakargarria proposatuz. Batuaz, bizkaieraz, bermeotarrez... denak dira onak, ulertzeko ahalegina sustatu behar da.
Lanbide Heziketa	Ikasle euskaldunekin euskarazko harremanei eustea eta ez dakitenengan gogoia piztea.
Ongizatea	Oinarrizko zerbitzuetan alor honi dagokionez zer eskaini dezakegun aztertzea.
Musika-eskola	Irakasleek eskolatik haratago euskararen erabilera daukaten inpaktuaren lanketa sustatzea.
Antolakuntza	Euskaldunengandik haratago, beste errealitate soziolinguistikoa daukaten herritarrek gai honi buruz daukaten pertzepzioa ezagutzea, non eragin behar den jakiteko.
Kirola	Euskara integratzeko ezinbesteko tresna dela sustatzea. Etorri berriei dagokionez, plano ezberdinetan lan egitea, gaztelania dunengan bereziki.
Komunikazioa:	Udal komunikazioetan euskararen erabilera lehenesteko estrategia landu, Bermeoko beste hizkuntzen kudeaketa zelan egingo den aintzat hartzen.

ERRONKA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
Lan-ildoak	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.
Ekimena	G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.
Ekimena	G.1.1.4. Hizkuntza-eskubideen diskurtsoa indartu.
Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.
Ekimena	G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.
Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.
Lan-ildoak	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.
Ekimena	G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.
Ekimena	G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen indarberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.
ERRONKA	G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.
Lan-ildoak	G.2.1. Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.



Ekimena	G.2.1.2. Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu.
Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sensibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.



ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
Lan-ildoak	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.
Ekimena	JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu.
Ekimena	JM.1.1.2. Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu.
Ekimena	JM.1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zaindaz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.
Lan-ildoak	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.
Ekimena	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu eremu guztietan.
Ekimena	JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboak bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.
Lan-ildoak	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
Ekimena	JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.
ERRONKA	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
Lan-ildoak	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.
Ekimena	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.
Lan-ildoak	JM.2.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.
Ekimena	JM.2.2.1. Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.
Ekimena	JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.
Lan-ildoak	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.

Ekimena	JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.
Ekimena	JM.2.4.3. Euskara ezagutu eta erabiltzearen aldeko diskurtso askotarikoak garatu.
Ekimena	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.
Ekimena	JM.2.4.5. Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.



EZAGUTZA / GAITASUNA_2025-2030

ERRONKA	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.
Lan-ildoak	EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.
Ekimena	EG.1.2.2. Familia-transmisioari lotutako proiektuak egokitu ibilbide biologikoa kontuan hartuta.
Lan-ildoak	EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza³ kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.
Ekimena	EG.1.3.2. Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoaren inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini
ERRONKA	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
Lan-ildoak	EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.
Ekimena	EG.2.1.1. Euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu, eta horretarako euskara estandarra zein tokiko hizkerak elikatu, aberastu eta sendotu, eta adierazkortasuna indartu, hizkuntzaren kalitatea bermatuz.
Ekimena	EG.2.1.3. Hizkuntza- eta kultura-ondarea jaso, eta gaur egungo beharrei erantzuteko baliabideak sortu nahiz zabaltu.
Lan-ildoak	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze-prozesuak aztertu eta beharraren arabera eskaintzak sortu.
ERRONKA	EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
Lan-ildoak	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.
Ekimena	EG.3.1.1. Ikaskuntza-prozesuak errazteko baliabideak sortu eta eskaini.
Ekimena	EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.
ERRONKA	EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.
Lan-ildoak	EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.
Ekimena	EG.4.1.2. Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu.
Lan-ildoak	EG.4.2. Euskara-gaitasuna hobetzen
Ekimena	EG.4.2.2. Esparru naturalagoetan / informalagoetan euskara erabiltzeko baliabideak garatu.

ERRONKA	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.
Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu
Ekimena	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.
Ekimena	EE.1.1.2. Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin.
Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.
Ekimena	EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu.
Ekimena	EE.1.1.8. Euskarazko kultura-produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.
Ekimena	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.
Ekimena	EE.1.1.10. Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi, euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.
Ekimena	EE.1.1.11. Erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu.

IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA_2025-2030



ERRONKA

I.S.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA_2025-2030

ERRONKA

H.1. Ardatz estrategikoetako lan ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.

06.

Kudeketa-planaren oinarriak



Esan bezala, plan estrategikoan landutakoak gauzatzeko ekintza zehatzak landu nahi ditugu herritarrekin batera, bereziki lehentasunak eta 2025eko ekintzak adosteari begira. Oinarri legez, plan estrategikoan adostutakoak aurrera eramateko gaur egun udalean aurreikusten ditugun oinarriak eta lanketak bildu ditugu hurrengo kudeaketa-planean:



1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA

ERRONKA G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

Lan-ildoak	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.	Gobernu Planean hizkuntza-eskubideen diskurtsoa indartzeko oinarria jasota dugu eta udal Hizkuntza Irizpideetan ere eskubideei buruzko ezarpenak jasota daude. Horrez gain, Bermeoko Udala UEMAKo kidea da eta, besteak beste, berezko konpromisoa daukagu arduradun politikoak euskaldunak izateko. Datozen urteetan ildo beretik jarraituko dugu. Kontratazioetan, baimenetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak ezarri. Administrazioen arteko harremana euskaraz izan dadin sustatu eta intzidentziak batu. Hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipena egin, bereziki herritarrekin lotutakoetan: komunikazioak, agerraldiak, ikastaroak... Baliabide informatikoen euskararazko erabilera sustatu Erabilera Planaren tarteko ebaluazioa egin Langile eta hautetsientzako trebakuntza-fitxa bidali. Langileei trebakuntza saioa eskaini A mailakoa / B mailakoa. (moodle/presentziala) Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.
	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.	
	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.	

ERRONKA

G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.

Lan-ildoak

G.2.1. Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.

G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.

Gobernu Planean gizarte-aniztasuna eta bilakaera demografikoek dakartzaten hizkuntza-erronkak kontuan hartzeko konpromisoak jasota ditugu; esaterako: eskuorriak eta bestelako materialak herritarren ama-hizkuntzetan bideratzeko konpromisoa (Wólof, arabiera...). Udalak etorri berrientzako euskara-eskolak eta gurasoentako hizkuntza-eskolak antolatzen ditu. Udal-mailan errolda egiteko unea estrategikotzat jotzen da, UEMAren hainbat lanketa egin izan dira, horiek berreskuratu beharko lirateke. UEMAren bitartez ikastetxeekin etengabeko harremana daukagu, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko, besteak beste. Datozen urteetan lanketa horiek indartzeko asmoa daukagu.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERAK / MOTIBAZIOA

ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta –portaeretan eragin.	
Lan-ildoak	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.	Euskaraldia dinamikak Bermeoko euskaldunen kontzientzia eta aktibazioan daukan eragina estrategikotzat jotzen dugu. UEMAre bitartez beste hainbat kanpaina bideratzen ditugu: Euskara ikasteko kanpaina eta dirulaguntzen berri emateko kanpaina, Egin Nirekin euskaraz kanpaina... Kanpaina guztien azterketa eta erronka berriak landuko ditugu datozen urteetan.
	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.	
	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.	Ikastetxe(et)an HEDATU proiektua sistematizatu eta ibilbidea zehaztu. Ikasturte bukaeran HEDATU buruzko balorazioak eskatu, jaso eta aztertu. Ikasleentzako saioak eman: Ispiluari Begira (LH2), Bagoaz (LH6), Batxitailerra Seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko formazioa eskaini gurasoei Kontzientziazioan eta ahalduntzean eragiteko ekimenak eskaini: hitzaldiak, emanaldiak, kanpainak... (Arnasa Gara...) Herriko elkarteekin lanketa egin, herriko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko, hizkuntza irizpideak zehazteko eta hizkuntza kudeaketaren inguruko komunikazio formatuak adosteko.
ERRONKA	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	
	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu.	Hurrengo urteetan herritarrekin batera Bermeoko euskara indaberritzen laguntzeko egitura berri bat osatu nahi dugu. Bestalde, AROA diagnostikoan Bermeoko gazteek euskal erreferenteen falta daukatela ondorioztatu da; testuinguru horretan udalak kirol-begiraleekin lanketa berezia egingo du
	JM.2.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.	

Lan-ildoak

JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.

euskararen erabileran daukaten eraginaz ohartarazteko eta euskararen erabilera sustatzeko. Horrez gain, “Mundu bat” bertso-egitasmoa berrabiaraziko da, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz. Turismo-arloan ere, gai horrekin lotutako zenbait lanketa egitea estrategikotzat jotzen dugu; hala nola, San Juan interpretazio-zentroari begira, turismo-bulegoari begira, etxebizitza turistikoari begira... Horretarako, Eragin Lingusitikoaren Ebaluazioetan proposatzen diren neurri zuzentzaileak kontuan hartzekoak dira. Era berean, UEMAre bitartez Bertarik Bertara kanpaina egiten jarraituko dugu, bisitariei euskararen berri emateko. Oso estrategikotzat jotzen dugu Gizarte Ongizate saila eta UEMAre arteko elkarlana sustatzea, besteak beste, harrera linguistiko eta kulturala lantzeko.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EZAGUTZA / GAITASUNA		
ERRONKA	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.	
Lan-ildoak	EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.	Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini.
Lan-ildoak	EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.	UEMAk gai honen inguruan lanketa batzuk egiten dituen arren, ikastetxeetan bereziki, hurrengo urteetan gehiago sakondu beharko genuke. Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estrategietan Aisialdi, kirol eta kultura arloan estrategikoak diren elkarteei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak...). Ahalduntze saioa eskaini udalekuetako begiraleei.
ERRONKA	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.	
Lan-ildoak	EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.	Eingule?ren bitartez bertako hitz errazak ikasteko eta zabaltzeko dinamika sustatu dugu; eta azken urteetako arrakasta kontuan hartuz, dinamikarekin jarraitzea aurreikusten dugu. Bestalde, udalak euskara ikasteko dirulaguntzei eutsiko die.
	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.	
ERRONKA	EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.	
Lan-ildoak	EG.3.1. Atzeritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.	Euskara-eskoletan eta guraso-taldeentzako eskoletan zenbait jatorri atzeritarreko bermeotar batzen dira; eskola horiek ekonomikoki eskuragarriago egiten jarraituko dugu. Bestalde, eskolaz kanpoko jardueretan jatorri atzeritarreko bermeotarren seme-alaben parte-hartzea neurtzeko ikerketa bat egitea estrategikotzat jotzen dugu; betiere sexu-generoa eta bestelako aldagaiak kontuan izanik.

ERRONKA	EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.	
Lan-ildoak	EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.	Eingule eta Eskuera dinamiken bitartez, gazte eta esparru informaletako euskararen erabilera eta ezagutza sustatzen jarraitu nahi dugu.
	EG.4.2. Euskara-gaitasuna hobetzen	



4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA / ELKARRERAGINA

ERRONKA EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu	Elkarreraginean ekarpena egiten duten zenbait ekimen antolatzen jarraituko dugu: • Transmisioa: jaioberri eta umeentzako dinamikak, ikastetxetako ikasleak Bermeoko egoitzetara egindako bisitak... • Alor sozioekonomikoa: Eskueran dinamika eta errotuluak euskaraz bakarrik jartzeko dirulaguntza. • Kirola: begiraleekin egingo den lanketa. • Euskarazko hedabideak: udalak Itsuki irratia berreskuratuko du, Hitza komunikabidearekin duen hitzarmenari eutsiko dio eta ikasleen artean Gaztezulo eta Irrien lagunak aldizkariak banatzen jarraituko du.
------------	--	---

**Bermeoko euskara
indarberritzeko aroa
da!**





www.elhuyar.eus